

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu


Doako alea

378 zb.
www.getxo.eus

>> 2023ko Maiatza



HIRIKO UZTAILA 5 > 12 URTE
UDALEKUAK





Udako eta datorren ikasturteko ludotekarako izen-ematea

Kukupraka Ludotekak udan, aste bateko hamar txandatan, eta 2023/2024ko ikasturtean ere eskainiko duen zerbitzuan parte hartzeko izen-ematea maiatzaren 8tik 18ra zabalik egongo da. Udako doako jarduerak Romo ikastetxean izango dira, astelehenetik ostiralera, 10:30etik 13:30era, 2012tik 2017ra jaiotako umeentzat. Ohi bezala, familia interesatuek online bidezko inprimakia bete beharko dute zehazteko zenbat astetan eraman nahi duten umea, zeintzuk eta nahiago den ordenan. Guztira, 360 plaza izango dira (36 txanda bakoitzean). Bestalde, datorren ikasturtean Areetako Eskoletako plazako Ludotekaren txandak hurrengoak izango dira: 5 eta 6 urte artekoentzat astelehen, asteazken eta ostiralean; 7 eta 9 urte bitartekoentzat astearte, ostegunetan eta ostiralean. Astelehenetik ostegunera orduetegiak 17:00etatik 18:30era eta 18:30etik 20:00etara izango dira; ostiralean jardueren arabera izango da. Larunbatetan egitarau berezia izango da 10 eta 11 urtekoentzat, 17:00etatik 20:00etara, eta batzuetan goizez. Guztira 120 plaza izango dira. Izen-ematea eta tasak: <https://www.getxo.eus/euskara>

“Googaz” ekimenak GJHak ezagutzera gonbidatzen du errealitate birtualeko jokoen bidez

Gazte inkonformistek sortutako, eta BBK Kunak, Foru Aldundiak eta VirtualWarek babestutako Googaz ekimena maiatzaren 11n eta 12an iritsiko da Getxora, 16 eta 30 urte bitarteko gazteak Garapen Jasangarriko Helburuak errealitate birtualaren bidez hobeto ezagutzera gonbidatzeko. Hiru pertsonako taldeetan parte hartu ahal izango da, eta ikastetxeetako ikasleek ere parte hartu ahal izango dute. Lehenengo fasea errealitate birtualeko betaurrekoen bidezko esperientzia murgiltzailea izango da. Jarduera 17:00etatik 20:00etara izango da Urgull Zentroan (Algorta). Ezinbestekoa da izena ematea (<http://www.googaz.eus>) plazan kopurua mugatua baita. Hiru talde izango dira: bata 17:00etan, bigarrena 18:00etan eta hirugarrena 19:00etan. Bigarren fasea Hackaton bat (programatzaileen topaketa bat software soluzioak taldean eta denbora jakin batean diseinatze) izango da. Ekainaren 17an izango da, BBK Kunan, eta taldekako errealitate birtualeko joko baten gidoia sortzea izango du helburu jarduerak. Irabazleak errealitate birtualeko betaurrekoak eramango ditu.

Romoko Gaztelekuaren programazioa Maiatza

GureGune gazteleku

Hilak 5, ostirala: TXAPELKETA: RUBIK KUBOA
Hilak 6, larunbata: IRTEERA: BREAK ON STAGE
Hilak 10, 24 eta 31, asteazkenak: TAILERRA: ANTZERKIA: TAUPADA
Hilak 11, osteguna: SUKALDEA: GAILETA
Hilak 12, ostirala: ESKULANA: LANPARAK
Hilak 14, igandea: TXAPELKETA: FIFA
Hilak 16, asteartea: ESKULANA: FINGER SKAT
Hilak 18, osteguna: ESKULANA: MARRAZKI ESGRAFIATUA
Hilak 20, larunbata: IRTEERA: KIRIBILEKO UDAKO JAI
Hilak 23, asteartea: TXAPELKETA: PING-PON
Hilak 26, asteazkena: SUKALDEA: TXORIPAN

Algortako Gaztelekuaren programazioa Maiatza

GauEgun gazteleku

Hilak 6, larunbata: IRTEERA: BREAK ON STAGE
Hilak 11, osteguna: MASTER CHEF: TALOAK
Hilak 12, ostirala: MULTIKIROLA
Hilak 13, larunbata: IRTEERA ZINEMARA
Hilak 18, osteguna: FUTBOLIN TXAPELKETA
Hilak 20, larunbata: IRTEERA: KIRIBIL FESTA
Hilak 24, asteazkena: ESKULANAK: COMECOCOS
Hilak 26, ostirala: MARRAZKETA TXAPELKETA

5 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, maiatzaren 8an irekiko da izena emateko epea

Udako Hiri Udalekuek aurten 192 plaza eskaintzen dituzte

Maiatzaren 8tik 18ra arte irekita egongo da Udaleko Gazteria Zerbitzuak 5 eta 12 urte (2011tik 2018ra) bitarteko eta errolatutako umeentzat antolatutako herriko udalekuean parte hartzeko izena emateko epea. Udalekuak Geroa ikastolan, eta San Ignazio eta Romo herri ikastetxeetan eskainiko dira, uztailean zehar, bi aste txandetan banatuta. Lehenengo txanda uztailearen 3tik 14ra arte izango da, eta bigarrena 17tik 28ra bitartean. Orduetegiak 09:00etatik 14:00etara edo 09:00etatik 17:00etara (azkena bazkaria barne) izango da. Larunbat, igande eta jai egunetan ez da izango. Prezioak desberdinak izango dira, eta 32,10 eta 194 euroren artekoak izango dira, egoeraren arabera.

Hiri-udaleku hauen helburuak askotarikoak dira: uztailean udalerriko haurrei gizarte- eta hezkuntza-proiektu bat eskaintzea; diskriminaziorik gabeko balio eta jarrerak garatzea; haurtzaroren garapen



integral osasungarria bultzatzea (irudimena, sormena, nortasuna eta autonomia pertsonala); balioetan oinarritutako hezkuntza eta bazterkeriarik gabeko jarrerak sustatzea, bai eta kulturartekotasuna ere; parte-hartze aktiboa bultzatzea; ingurumenarekiko jarrera positiboak bultzatzea; lankidetzeta, elkartasuna, errespetua, tolerantzia eta berdintasuna bultzatzea; lana eta

familia bateragarri egitea eta ingurune hurbilena, euskal kultura eta euskararen erabilera ezagutzera bultzatzea.

Izen-ematea online egin ahal izango da www.getxo.eus/gazteria helbidearen bitartez edo aurrez aurre Gazte Bulegoan hitzordua eskatuta: 688 88 09 85. Hor bertan emango da prezioen berri. Informazio gehiago: 94 466 03 53/688 66 03 53.

AISIALDIA ETA TARTE LIBREAK UDAN

	EKINTZA	DATAK	ADINA	PREZIOA	HIZKUNTZA	IZENA EMATEKO EPEA	INFORMAZIOA
GAZTERIA	Hiriko Udalekuak	Uztailean	5-12 urte	Kontsultatu	Euskara	Maiatzaren 8tik-18ra	GazteBulegoa@getxo.eus Izenematea online: www.getxo.eus/gazteria - Aurrez aurre Gazte Informazio Bulegoan hitzorduekin: 688 88 09 85
KUKUPRAKA LUDOTEKA	Udako Programa	Ekainaren 26tik irailaren 1era arte	2012-2017 (biak barne)	Dohainik	Euskara	Maiatzaren 8tik-18ra Informazioa web gunean	areetakoludoteka@getxo.eus Izenematea online: www.getxo.eus/euskara
GAUEGUN GAZTELEKUA eta GUREGUNE GAZTELEKUA	Ekintza Anitzak (jolasak, irteerak...)	-Astearte, asteazken, ostegun eta igandean: 17:00etatik 20:00etara - Ostiral eta larunbatetan: 17:00etatik 21:00etara -Astelehenean eta abuztuan, itxita	11-17 urte	Dohainik, irteerak izan ezik	Euskara eta gaztelania	Ez dago, irteerarako izan ezik	gauegungazteleku@getxo.eus 94 466 03 56 guregunegazteleku@getxo.eus 94 466 00 22
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA	Bapiruke Udaleku Irekiak	Ekainaren 26tik 30era Uztailearen 3tik 14ra Uztailearen 17tik 28ra	5 eta 12 urte artekoentzat 2011-2018 (biak barne).	Prezio desberdinak, 35 eta 145 euroren artekoak	Euskara	Maiatzaren 15etik 17ra	www.bizarrallepoan.eus 94 491 0387 info@bizarrallepoan.eus
ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA	Udalekua	Uztailearen 17tik 29ra	8-18 urte	135 euro inguru	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 23tik 29ra	eskubeltz@eskaut.org
GETXO KIROLAK	Udako kirol ikastaroak Kirol klubek antolatutako 20 bat modalitate	Uztaila, abuztua	4-17 urte 3-17 urte	94,50-99,20 euro Galdetu klubetan	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 5era arte (Maiatzaren 10ean: zozketa) Kontsultatu kirol klubekin	Fadurako eta Gobelako arreta bulegoak edo getxokirolak.getxo.eus webgunean
KIROLETAN SPORT	Kirol anitzeko Campusa (Getxo Ieroko patinaje-kluba) Gobela kiroldegian eta Romo ikastetxean Saski baloiaren Campusa %100 Fadura kiroldegian eta Andramari ikastetxean	Ekainaren 26tik uztailearen 28ra	3-13 urte 6-14 urte	30 - 550 euro	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 1etik ekainaren 15era	94 608 59 33 Igor 662 940 436 igor.i@kiroletansport.info www.kiroletansport.com 94 608 59 33 Fran 657 77 35 23 getxosaski@gmail.com admin@kiroletansport.info www.kiroletansport.com
EUSKALTEGIAK	Udako trinkoak	Ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean	Euskaltegien arabera	Euskaltegien arabera	Euskara	-	Getxoko euskaltegien zerrenda: https://labur.eus/F4vny
UDAL LIBURUTEGIA	Letren Terrazak	Uztailearen 4tik 28ra: Iturgitxi, Gernika parkea eta Sarri. Abuztuaren 1etik 25era: Algorta Geltokia, Areeta Geltokia eta Aldapa parkea	Adin guztietarako	Dohainik	Euskara eta gaztelania	Irekia	Udal liburutegiak eta gizarte sareak
UTOPIAN	Antzerkia eta dantza campusa	Uztailearen 3tik 7ra eta 10etik 14ra	Txanda desberdinak: 7-12, 8-14 eta 15-25 urte	30 -280 euro	Euskara eta gaztelania	Ekainaren 12ra arte	Utopian 944303194 utopiangetxo@gmail.com
ZIRRI MARRA	Arte Tailerrak	Ekainaren 26tik irailaren 8ra arte	2010-2019 (biak barne)	110 euro asteko (100 euro bigarren neba/arreba)	Euskara eta gaztelera	Irekita	Zirri Marra Arte Tailerra 944916186 - 688811696 zirrimarrarte@gmail.com

UDAKO AISIALDIRAKO EKITALDI ESKAINTZARI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGO: GAZTE BULEGOA (ALGORTAKO ETORBIDEA, 98).
TEL: 94 466 0353 gaztebulegoa@getxo.eus